

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2018-19 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2018-19

ikastetxea: <i>centro:</i>	Uribe Kosta BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	3 DBH
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Gorputz Hezkuntza		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Matematika, Natur Zientziak, Euskera, Informatika, Musika, plastika		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<p>GURE ARLOAN , GORPUTZ HEZKUNTZAN, oinarrizko kompetentzi guztiak garatzen ditugu:</p> <p>1- Gizarte eta hiritar kompetentzia (Arauak eta taldekideak errespetatzea, onartzea,....)</p> <p>2- Ikasten ikasteko kompetentzia (Norbere eta besteen gaitasunak eta mugak ezagutu eta barneratu)</p> <p>3- Matematikarako gaitasuna (Espazioa kontrolatzea, denboraren perpezioa, magnitudeak edo neurriak,....)</p> <p>4- Ikasten ikasteko gaitasuna (Norbere eta besteen mugak eta gaitasunak ezagutu eta onartu)</p> <p>5- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna (Hizkuntzaren trataera era ludiko batean)</p> <p>6- Giza eta arte kulturaren gaitasuna (Sentimenduen adierazpena, sormena, dantzak,...)</p> <p>7- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (Gorputza kontrola, higiene ohiturak,...)</p> <p>8- Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna (Elikadura ohitura osasungarriak barneratzea)</p> <p>9- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna (Informazioa eta teknologia berriak era egokian erabili eta aztertze gai izatea)</p>		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Iñigo Fernández de Arangiz,Eriz Zuazo	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018/19

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

Gure ikasgaien zeharkako kompetentzi hauek garatzen ditugu:

- 1-Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.**
2-Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3-Elkarbizitarako kompetentzia
4-Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia
5-Izaten ikasteko kompetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Osasuna bere osotasunean ulertzea eta zaintzea. Osasunaren ezaugarri guztiak kontuan hartzea eta, arnasketa- eta erlaxazio teknikak nahiz segurtasun neurriak ezagutzea, bizi kalitateaz gozatzeko. 2. Osasunaren eta bizi kalitatearen egoera hobetzeko egiten den jardura fisikoaren erabilera balioestea. 3. Errendimendu motorraren aukerak handitzeko, osasun egoera fisikoa hobetzeko, eta gorputzaren kontrol funtzioak hobetzeko lanak egitea, eta zeregin horrean bere burua behartzeko jarrera hartzea. 4. Kiroletako jardura fisikoak egin bitartean sor daitezkeen lesioetan lehenengo zer egin behar den jakitea eta hori aplikatzea, prebentzio erabakiak hartu ahal izateko. 5. Ahalmen fisikoekin eta trebetasun espezifikoen lotutako premiak asetzeko jarduerak planifikatzea, jardura fisikoaren programak autonomiaz eta banan banan sortzeko. 6. Banakako, taldekako eta aurkaritzako kirol eta jolasjarduerak ezagutzea eta praktikatzea, eta, horietan, araudi oinarri teknikoak eta taktikoak aplikatzea; horrez gainera, ekintza horiek gero eta autonomia handiagoz gauzatzea. 7. Jarduerak, jolasak eta kirola egitean, errespetuz jokatzeko, talde lanean aritzeko eta kiroltasunez jarduteko trebetasunak eta jarrera izatea, bakoitzaren trebetasun desberdintasunak kontuan hartu gabe. 8. Ezkutuko curriculumaz aztertuz, gizarteak gorputza lantzeari, jardura fisikoari, kirolari eta osasunari buruz duen ikuspegia modu kritikoa eta autonomoan aztertzea, mezu gaiztoak identifikatu ahal izateko. 9. Musika oinarri hartuta edo hartu gabe, adierazpen jarduerak egitea eta diseinatzea, eta gorputza komunikatzeko eta</p>	<p>1-Ea ikaslea bere osasun maila ezagutu eta ahal duen neurrian hobetzeko ohiturak finkatzen doan, konturatzeko bere bizitza kalitateari ekartzen dizkion onurak eguneroko bizitzan mesede egingo diotela.</p> <p>2-Ea ikasleak ausnarketa pertsonala egiten duen ekintza fisikoek bere bizitza kalitatean dituzten onurak balioetzeko.</p> <p>3- Ea ikasle konturatzeko den ausardia, iraunkortasuna eta bakoitzaren lanaren balioetaz, bai egoera fisikoa, osasuna eta ikasketen maila hobetzeko duen eragin zuzenean. Ariketa fisikoak neuronen arteko konektzio kopurua handitu egiten duela ikerketetan baieztatuta dagoelako.</p> <p>4- Ea ikaslea kirol ekintzetan gertatu ahal diren istripuetan eta gertatu aurretik hauen prebentzioan babes neurriak eta neurri zuzentzaileak hartzen dituen.</p> <p>5- Ea ikaslea era autonomoan oinarritzeko ekintza fisikoak programatzeko eta aurrera eramateko gai den.</p> <p>6-Ea dakien eta bereizten dituen, banako eta talde kirolak praktikatzeko oinarritzeko teknika eta taktika geroan bere aisi denboran erabili ahal izateko.</p> <p>7- Ea bere burua eta bere ikaskideak errespetatzen eta ahal duen neurrian laguntzen dituen, geroan gizarte mailan zoriontsuagoa eta emankorragoa izan dadin.</p> <p>8-Ea aurrera egiten duen hezkidetzaren arloan eta harremanak modu naturalean neska mutilen artean garatzen dituen eta bide hau kritikoki ezagutu eta aztertzeko gai den.</p> <p>9- Ea gai den musika eta erritmo desberdinak landuz (Euskal Dantzak, erlaxazio jarduerak musikarekin,...) hauek banaka eta taldeka praktikatu, ezagutu eta bereizteko.</p>

sormena adierazteko erabiltzea. Horretarako, dantzen eta banakako nahiz taldekako antzezpenen bidez, mugimendu sortaileak garatuko dira. 10. Jarduera ludikoak eta kirol jarduerak diseinatzea, antolatzea, kudeatzea eta horietan parte hartzea, helburu bateratuak lortzeko; helburu horiei esker, aisialdi denboran beste pertsonekin elkartu eta lankidetzan aritu ahal izango da. 11. Euskal Herriko eta tradizio ludikoak eta fisiko nahiz kirolekoak duten gizarte eta kultura kutsua aintzat hartzea. Euskal kulturaren eta beste kultura batzuen balioak errespetatzeko eta baloratzeko; horretarako, dantzak, jolasak eta tradizioko adierazpen herrikoiak praktikatzeko dira.

10- Ea bere aisi denboran jarduera ludikoak eta kirolak banaka eta taldeka erabiltzen dituen, beraiekin ondo pasatzen duen eta hauek antolatzeke gai den.

11- Ea ezagutzen, bereizten eta erabiltzen dituen Euskal Herriko tradizio ludiko eta fisikoak eta hauek gure kulturaren daukaten garrantzia onartuz beste kulturek dituzten bereizitasunekin konparatu eta ezagutzen dituen.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

- **...1. EBALUAZIOA**

- _ Froga fisikoak (Cooperen testa, abiadura, malgotasuna eta indarra)
- _ Oinarrizko gaitasun fisikoak: Erresistentzia (Entrenatzeko sistema JARRAIK: lasterketa jarraia eta fartlek , erresistentzi jokoak ,joko konpetitiboak eta kooperatiboak) Bihotz taupaden kontrola.
- Frontoi Kirolak: pala eta frontenisa.
- _ **ARAZO EGOERA: JOKO KOERATIBO ETA KONPETITIBOAK**
- -Erlajazio jarduerak landu : arnasketa diafragmatikoa, txi kun, yoga ,masaia,oinarrizko kontzeptuak praktikan bizi.
- _Cabo Billano enpresarekin goiz osoko kirol ekintza bereziak (Padel surf, kayak, surf edo boogy)
- --Gure ikastetxeko lurretan eta gelan senda belar, usain belar eta ortuko produktu batzuk ezagutu eta praktikan bizi. Konpostaren prozesua ezagutu eta praktikan jarri.

- **2. EBALUAZIOA:**

- _ Boleibola eta badminton
- _ Euskal Dantzak: iturria eta borobila.
- _ Indarra eta malgotasuna
- _ **ARAZO EGOERA:PLENTZIKO JAI ALAI FRONTOI ESTALIAN EKINTZAK**
- -Erlajazio jarduerak landu : arnasketa diafragmatikoa, txi kun, yoga ,masaia,oinarrizko kontzeptuak praktikan bizi.
- --Gure ikastetxeko lurretan eta gelan senda belar, usain belar eta ortuko produktu batzuk ezagutu eta praktikan bizi. Konpostaren prozesua ezagutu eta praktikan jarri.

- **3. EBALUAZIOA :**

- _ -Erlajazio jarduerak landu : arnasketa diafragmatikoa, txi kun, yoga ,masaia,oinarrizko kontzeptuak praktikan bizi.
- - - Esku baloia.
- - **ARAZO EGOERA: ELIKADURA,ARIKETA FISIKOA ETA OSASUNA.**
- _ Cabo Billano enpresarekin GINKANA ETA UR EKINTZAK. (Kayak, Orientering, eta Jinkana) Goiz osoa.
- - Oinezko ibilbidea: "senderismoa" . Gure inguruneko basoak ETA GURE LURRA ZAINTZEN , (AGENDA 21 PROIEKTUAREN BARNEAN)
- _ Ekintzak gure ingurune naturalean: Bolei , Beisbol oina , pala, freesbe eta futbola ondartzan.
- --Gure ikastetxeko lurretan eta gelan senda belar, usain belar eta ortuko produktu batzuk ezagutu eta praktikan bizi. Konpostaren prozesua ezagutu eta praktikan jarri.
- -Erlajazio jarduerak landu : arnasketa diafragmatikoa, txi kun, yoga ,masaia,oinarrizko kontzeptuak praktikan bizi.

-
-
-

- ...
-
- ...
- ...

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

1- IRAKATS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA : Globala eta aktiboa izango da, ikaslearen inplikazioa bultzatuz bere autonomia lortzeko. Metodo eta estrategia ezberdinak erabiliko ditugu lantzen ari garen edukien arabera. Ikasleen mailaren arabera, irakaspena eta hobekuntza izatea bilatu Kooperatiboa eta arazoetan oinarritutako irakaspena eta lana. Proiektuen metodoa., ikasleek produkzio bat sortuz. Ikasleak modu ezberdinetan taldekatzen: talde mistoak handian edo txokoetan; talde homogeen edo heterogeenetan; binaka, zirkuituak... Jarduera ezberdinak bidali, ikasleen aniztasunean arreta jarrita. Fase zuzendua: Irakasleak edukia egituratzen du, lan modua eta lan printzipioak aurkezten eta aztertzen ditu. Fase autonomoa: Ikasleak bere jarduera prestatzen, burutzen eta ebaluatzen du

2- BALIABIDEAK : Globala eta aktiboa izango da, ikaslearen inplikazioa bultzatuz bere autonomia lortzeko. Metodo eta estrategia ezberdinak erabiliko ditugu lantzen ari garen edukien arabera. Ikasleen mailaren arabera, irakaspena eta hobekuntza izatea bilatu Kooperatiboa eta arazoetan oinarritutako irakaspena eta lana. Proiektuen metodoa., ikasleek produkzio bat sortuz. Ikasleak modu ezberdinetan taldekatzen: talde mistoak handian edo txokoetan; talde homogeen edo heterogeenetan; binaka, zirkuituak... Jarduera ezberdinak bidali, ikasleen aniztasunean arreta jarrita. Fase zuzendua: Irakasleak edukia egituratzen du, lan modua eta lan printzipioak aurkezten eta aztertzen ditu. Fase autonomoa: Ikasleak bere jarduera prestatzen, burutzen eta ebaluatzen du.

2.1 Baliabide analogikoak : Kirol instalazioak: gimnasioa, polikiroldegi pista, errugbi zelaia, hondartza. Materiala: esterilak, sokak, pilotak, erraketak, palak, makilak... Apunteak, egunkarietako artikulak, fitxa didaktikoak, taulak, behaketa fitxak,.... **IKASLEEN AHOZKO AURKEZPENAK ETA AZALPENAK.**

2.2 Baliabide digitalak : IKT baliabide didaktikoak erabiltzen dira:
www.sudurgorri.com ; www.sportaqus.com , kirolaren munduko blogak,
CLASSROOM,...

3.- Ikaslearen garapen integrala kontuan hartuko da ondorengo printzipioak kontuan hartuz:

- Sortzailea: sormena lantzeko proposamen ezberdinak egingo ditugu.
- Ludikoa: umearen bizitzan jolasak oso inportanteak dira. Hori dela eta bapatekotasunean parte hartzen duten jolasak egin beharko dira.
- Integratzailea: arraza, sexu, gaitasun ezberdintasunik ez egitea suposatzen du.
- Aktiboa: ikasleak bere ekintzaren protagonista izan behar du. Oso garrantzitsua da autonomia lantzea.
- Parte hartzailea: talde lana bultzatuz, kooperazioa eta hezkidetzatza landuko ditu.
- Bultzatzailea: bere lana antolatzeko, konparatzeko eta konprobatzeko gai izan behar du. Honela bere jarrerak, gaitasun eta ahalmenak hobetuz.

4.-Ikasleen taldekatzeak:

- Talde handia: unitate didaktikoen azalpenak ematen direnean agindu zuzena erabiliko da.
- Talde txikiak: binaka, hirunaka edo launaka; jardueraren arabera egingo dira.
- Banaka: une berezietan (edukiei buruzko frogak fisikoak eta teorikoak egitean).

5.-Espazioa eta denbora:


- Patioa, kiroldegia, gimnasioa, Jai-alai frontoia, errugbi-zelaia, Plentziko paseobidea, Plentziko errota ingurua eta ikasgela.
- Institutuko inguru naturala.
- Astean 2 saio jarraian.

6.-Baliabideak:

- Arlo teorikoa: ez dago ikasleentzat testu libururik baina ikasleei eskeinitako zaien dokumentazio teorikoa badago oinarrituta testu liburu ezberdinetan. Bideoak, web orrialdeak, classroom-a.
- Arlo praktikoa: kirol bakoitzeko berariazko materiala (futbol baloiak, saski baloiak, eskubaloi baloiak, petoak, gomaespumazko baloiak, zapiak, test tresnak, koltxonetak....)
- IKTaren erabilera (arbela digitala, classroom-a)

7- Gure Hobekuntza Planean eta [Hizkuntza Proiektuan](#) adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza

horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3.ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da".



<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p><i>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</i></p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><i>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</i></p>
<p>EBALUAZIO TRESNAK:</p> <p>1-KONTZEPTUZKO EDUKIAK: (ZER JAKIN)</p> <ul style="list-style-type: none"> -IKASLEAREN BEHAKETA FITXAK -IKASLEAREN LAN IDATZIAK -IKASLEAREN AHOZKO AURKEZPENAK -IKASLEAREN AURKEZPENAK POWER POINT EDO CLASSROOMEN BITARTEZ -IKASLEAREN AUTOEBALUAZIO FITXA -IRAKASLEAREN BEHAKETA KOADERNOA <p>2-JOKABIDE MOTORRAREN EDUKIAK: (EGIN ETA EKIN)</p> <ul style="list-style-type: none"> -IKASLEA FROGA FISIKOETAN EMANDAKO INPLIKAZIO ETA AHALEGINA(BEHAKETA TAULAK ERABILIZ) -IRAKASLEAREN BEHAKETA KOADERNOA -AUTOEBALUAZIO ETA KOEBALUAZIO GALDETEGIAK -SAIO BAKOITZEAN IKASLEAREN LAN PRAKTIKOA, KOOPERAZIOA ETA INPLIKAZIOA. 	<p>5. EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK ADIERAZLEAK :</p> <p>U.D. bakoitzean bi atal kalifikatuko dira: _ 1. ATALA: U.D.ari dagokion kalifikazio espezifikoa notaren %60.</p> <p>_ 2. ATALA: Jarrerarena (portaera, parte hartzea, osasun ohiturak, etabar.) notaren %40.</p> <p>U.D. bakoitzean:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● %60 UNITATE BEREZKO EDUKIAK: _ %20 KONTZEPTUZKO EDUKIAK (ZER JAKIN) <p>Tresna ezberdinak erabiliz: lan idatziak, lanen aurkezpenak (power point edo beste tresnaz lagunduta), azterketa idatziak, ahozko azterketak... Ezinbestekoa izango da lanak entregatzea eta aurkeztea. Ikasle batek ez badu entregatzen , ebaluazioa ez du gaindituko . Landutako kontzeptuak ulertu eta praktikara eramanez. Epetik at aurkezten diren lanak, notaren %10a kenduko zaio.</p> <p>Ebaluazio eguna baino aste bat lehenago lanak aurkezteko epea amaitzen da. *Taldekoko lana baloratzeko irizpideak: irakasleak nota bat emango dio taldeari. Nota hori taldekideen kopurutik biderkatuko da. Lortutako puntu guztiak</p>

3- JARRERAZKO EDUKIAK (NOLA):

- PARTE HARTZEA
- PORTAERA
- OSASUN OHITURAK
- PUNTUALITATEA
- IRAKASLEAREN BEHAKETA KOADERNOA
- IKASLEEN AUTOEBALUAZIO ETA
KOEBALUAZIOA.

partaideen artean bananduko dituzte, taldekide bakoitzaren inplikazioaren arabera.

%40 JOKABIDE MOTORRAREN EDUKIAK (EGIN ETA EKIN). Tresna ezberdinak erabiliz: Irakaslearen behaketa orriak, froga praktikoak.. Zenbait kasutan ikasleek laguntza emango dute autoebaluazio eta koebaluazio galdetegiekin. Saio bakoitzean ikasle bakoitzak egiten duen lana baloratuko da. Atal honetan, lana horren batz bestekoa ebaluazio nota izango da.

● **%40 JARRERAZKO EDUKIAK (NOLA)**

_ 4 etortze falta justifikatu gabe: ez da gaindituko . Justifikatuta badaude, klasean landutako edukien buruzko lan bat egin beharko du eta klasean aurkezpena egin. **_ 4 falta kirol arroparik gabe , klase praktikoa egiten ez badu,** ez da gaindituko . Justifikatuta edo ez justifikatuta, saioan jarduerak ezberdinak egingo ditu: lan bat egin, saioa eta saioan emandako. Azalpenak idatzi, saioaren hausnarketa egin, ikaskideen behaketa egin, epaile lana burutzen, materialarekin laguntza eman, etabar. Jarrera baloratzeko kontuan izango ditugun atalak:

A._ PARTE HARTZEA notaren %15 _ Proposatutako jarduerak onartzen ditu..Gogoz parte hartzen du. _ Hobetzeko nahia erakusten du. _ Aktiboki parte hartzea, etortzea. **_ 2 egun kirol arroparik gabe etortzea, justifikatu gabe, ebaluazioa ez da gaindituko.**

B._ PORTAERA notaren %10 _ Kiroltasunez jokatzeko: Bere kideek egindako lorpenak baloratzen ditu. Lankidetzara eman. Bere ikaskideei laguntzen die okertzen direnean. _ Irakasleekiko, ikasleekiko begirunea eta material eta instalazioetako errespetua. _ Pertsona bakoitzaren mugak errespetatu eta onartu trebetasunetan dituzten desberdintasunak sexuaren eta ahalmen fisikoaren arabera. _ Arreta. Azalpenetan eta ikaskideekiko aurkezpenetan adi egotea.

C._ OSASUN OHITURAK notaren %10 _ Kirol arropa eta oinetakoak eramatea, azken hauen lokarriak ondo lotuta eramanez. _ Dutxa hartu eta arropaz aldatu. _ Txikleak eta gozokiak ez jatea. _ Ille luzea motots batean biltzea. _ Txistua lurrera ez botatzea, klasean.

D._ PUNTUALITASUNA notaren %5 _ Klase guztietara puntualtasunez etortzen da eta joaten da. **_ Ebaluazio jarraian izango da . + Hiruhilabeteko kalifikazioa:l andutako U.D. nota guztien batz bestekoa izango da + Ohiko ebaluazioa :hiru hilabete bakoitzeko nota batz bestekoarekin egingo da. + Ez ohiko ebaluazioa: Atal praktikoa eta teorikoa bat izango da. Gainditzeko, 2 atalak gainditu egin beharko da.**

	<p><u>Atal bakoitzeko nota gutxienez 5 izan behar du ebaluazioa gainditzeko eta batz bestekoa egiteko.</u></p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>6. BERRESKURAPEN SISTEMA :</p> <p>U.D. bateko edukiak berreskuratzeko, egin gabe edo gaizki egindako jarduerak edo lanak irakasleak jarritako epeetan egingo dira. Hutsegiteagatik edo materiala ez ekartzeagatik gainditzen ez duten ikasleek klasean landutako gai buruzko azterketa bat egin behar izango dute. Ohiko eta ez ohiko azterketa. Atal praktikoa eta teorikoa bat izango du. Gai bakoitzeko, 2 atalak gainditu egin beharko dira.</p> <p>7. EGOERA BEREZITAKO KALIFIKAZIOA : Epe luzerako saioetara arrazoi justifikatu bategatik etortzen ez diren ikasleak (ospitalean edo etxean geratu egin behar direnak) lan bat egin beharko dute. Lana bere klasea momentu horretan lantzen ari diren edukiekin zerikusia izango du. Froga fisiko eta idatzia bere egoera berezira egokituta ere egin behar izango dute.</p> <p>8 .EXENZIOAK Legearen arabera ez dago inolako exentziarik arloan. Dena dela, curriculumaren adaptazioak onartzen dira.</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

<p>_ Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.</p> <p>_ Irakurketa Plana: Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarriko edukia izan dadin.</p> <p>_ HTB: Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.</p> <p>_ Hezkidetzaren (Aniztasuna): Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu.</p> <p>Guztien partaidetza positiboa sustatu.</p> <p>_ Bizikasi: "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."</p>

_ **Agenda 21:** Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.

_ **IKT:** Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).